

GIPUZKOAKO JOSTAKETAK

Makill-urrutilariakiñ saltalari eta chingolariak

Arzayak-dirade chit-eresiatuak, iru jostaketa oetara. Makillurrutian tiratzen-dute, eskuiko-eskuaren aurrenengo-iru beatzakiñ erdi-erditik artu-ta besagaiñ chit-bide-luzean. Ikusi ditut artzai-mutillak 60 laurka edo kuadroan makilla botatzen dutenak. Nere-gogoanean izandu-dan tiratzallerik andiena zan, Michelto esaten zioten bat. Besteak besa-gain aurrera begira bezela, onek tiratu-oizuen derrebek atzeraka.

Santa Luzia-egun batez, Billarrealen jokatu zion Michelto onek Bizkaitar bati onza bat urre, zortziña tira-aldietara, eta azkenengoan bota-zuen, makilla-ikusle-guzien gañetik chit urruñ. Begira aurkitzen-ziraden millaka gizonak, eta guziak gelditu ziran arriturik, geiegiko tiratze arzaz.

Iñon, ere ez da agertu izandu, makillarekinç saltatzen euskaldunarialderatu-zaionik. Ezagutu-izan-det nere jaiot-errian Antonio Irastorza, anka bakarrarekiko gizona, zeñari sugebatek eldu-ziolako zortzi urte zituen denboran, moztu-zioten bestea, eta ala ere, saltatu-oizituen makillarekin salto-bakarrean aldatuta, 31 oñ, eta chingo-bi, ta saltoan 58.

Badira Gipuzkoan artzaiak gaurko-egunean-ere makillaren-gañean korputza airean-dutela, lurrik oñekin ukitu-gabe, 80 laurka edo kua-

droan joango lirakeanak. Urreta esaten zioten Amezketar-batikusi-izan det, opajuntan eta esku-utsik, amairu-oñean saltatzen; baita beste-batere erri-berekoa, chingo-bi ta saltoan, ogeita amar oñ igarotzen-zitue-na; eta abiadurarekiñ ogeita emeretzi.

IZTUETA.

BI LORE ALDI



Lore samindu bakar jayozan
 Obi otz baten belar gañean,
 Ta nekazari batek artuta
 Nastutu zuben sorta batean;
 Ta guztiz apaindu zubenian
 Lokarri ederrian bildurik
 Zion biotzetz gizonak fedez
 Lore ayeri begiraturik:
 —¡A, zeñek somatu, nork pentsatu
 Lore guztien aben erdian
 Dagola bat jayotakoa
 Obi otz arren bakardadian!

.....

F. LÓPEZ-ALÉN

